

1. ariketa: aukeratu erantzuna

Jaurilaritzak osasunaz egindako inkesta bati buruz hitz egingo digute.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

1. Jaurilaritzaren inkestatik zer ondorio atera daiteke?

- a) Gure burua osasuntsu ikusten dugu, baina ez dugu ondo ikusten osasun-sistema.
- b) Gehienek aurreko hamar urteetan baino osasun hobea dutela uste dute.
- c) Jendea, oro har, pozik dago bere osasun-egoerarekin eta osasun-sistemarekin.

2. Zer diote kazetariak eta Osasun Saileko teknikariak osasun mentalaz?

- a) Inkestek ez dituztela sintomen datuak jaso.
- b) Krisiak izan duela eragina, txarrera egin baitu.
- c) Gaur egun gizonezkoen kopuruan ez dagoela aldaketarik.

3. Alkohola dela eta, zer ondorio ateratzen da inkestatik?

- a) Alkoholak beste droga batzuek baino eragin handiagoa duela osasun mentalean.
- b) Emakumezkoek eta gizonezkoek berdintsu edaten dutela.
- c) Gerora begira, gizonezko askok ondorio larriak izango dituztela.

4. Zer dio Esnaolak alkoholaren kontsumoaren gainean?

- a) Zer edari kontsumitzen diren azertu dutela.
- b) Arazo horren aurka egin beharra dagoela.
- c) Beste herrialde batzuetako politikak ezarriko dituztela.

5. Zer iritzi du Esnaolak egin beharrekoaz?

- a) Askoren erantzukizuna dela uste du.
- b) Erakunde askok parte hartzea oztipoa izan daitekeela uste du.
- c) Osasun Sailak eta Osakidetzak dutela ardura handiena uste du

6. Zer lortu dute inkestorekin?

- a) Jasotako datuekin diagnostiko bat egitea.
- b) Medikuek bezeroen diagnostikoa hobetzea.
- c) Pertsonen argazkiekin informazio gehiago jasotzea.

7. Zer dio Santi Esnaolak inkestari buruz?

- a) Lehenengoak izan direla desberdintasun sozialak identifikatzen.
- b) Osasunaren gaineko politikak martxan jartzeko erabiliko dutela.
- c) Hasieratik jaso dutela osasun txarragoa dutenen arreta.

8. Esnaolaren ustez, zer garrantzi du inkestak?

- a) Indar politikoen eragina neurtzen lagundu du.
- b) Tabakoaren legea aldatu behar dela erakutsi du.
- c) Orain arteko legeak baliagarriak diren ikusteko balio du.